



BORTZIRIETAKO JUBILOTEKA ZERBITZUAREN

FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

1.- XEDEA.

Araudi honen xedea da Bortzirieta GIZARTE ZERBITZUEN Mankomunitateak eskaintzen duen jubiloteka zerbitzuaren funtzionamendua ezartzea.

2.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA.

Jubiloteka pertsona nagusiak edota menpekotasun arina dutenak artatzeko zerbitzua da. Erabiltzaileei aukera ematen die beren bizimoduari eusteko euren ingurunean bertan, baita jardueren bitartez beren gaitasun fisiko nahiz kognitiboak hobetzeko ere. Arnasaldi bat da pertsona hauek epe luzean beren gain dituzten familientzako, eta horrez gain haien bizitza soziala, familiarra, pertsonala eta laborala bateratzeko modu bat.

3.- HELBURUAK.

Jubiloteka zerbitzuaren helburua da pertsona nagusien bizi kalitatea hobetzea, ondoko arloetan:

Jarduera fisikoa eta gaituntza funtzionala. Programen helburua izanen da autonomia fisikoa sustatzea edo mantentzea, eta horretarako jarduera fisikoak diseinatu eta eginen dira: giltzadurak mugitzea, muskuluak luzatu eta indartzea, koordinazio orokorra, oreka, gorputz jarrera zuzendu eta doitzea. Azken batean, tonu muskularrari eutsi eta giltzaduren mugimendua zabaldu edo mantentzea izanen da xedea, bai eta osasunaren hobekuntza eta erorikoen prebentzioa sustatzea ere.

Kognitiboa. Programetan goi mailako gaitasun kognitiboak estimulatu eta birgaituko dira, hala nola arazoimena, adimenaren mantentzea eta buru-zalutasuna, kontzentrazioa, hizkuntza edota oroimenaren entrenamendua. Horrela lortu nahi da narriadura kognitiboa atzeratzea, pertsonak lehendik dituzten gaitasunak garatuz, eguneroko jarduerak egin eta erabakiak hartu ahal ditzaten ahalik eta autonomia handienarekin.

Emozional-afektiboa eta soziala. Programen helburua adinekoen erresilientzia eta ongizate emozionala eta mentala sustatzea izanen da, behar diren tresnak eskainiz ongizate emozional handiagoa izan dezaten laguntzeko.

Era berean, adineko eta/edo mendeko pertsonen zaintzaile ez-profesionalei aholkularitza, prestakuntza eta informazioa emateko programak diseinatu ahal dira. Programa hauek diseinatzean, informazioa eta aholkularitza sustatzea bilatuko da, bai eta taldekako esku hartze psikoedukatioak ere familia zaintzaileentzat. Tratu onean oinarritutako jardunbideak sustatuko dira.

Parte-hartze komunitarioa: Parte-hartze komunitarioak adinekoen ongizatea sustatzen du, kide izatearen zentzua sustatuz eta beste eragile eta pertsona batzuekiko lotura sozialak sortuz. Jubilotekan parte hartzen dutenek hainbat jai ospatzen dituzte urtero (inauteriak, Martxoak 8) eta herrian egiten diren ekitaldi eta erakusketetara ere joaten dira (Kultur Etxean, zahar egoitzetan...).

4.- HARTZAILEAK.

Jubilotekan izena ematea eta parte hartzea eskatzen ahal dute Bortzirietan bizi diren pertsona adinekoek. Bortzirietan bizi ez diren pertsonen aldetik eskaeraren bat izanez gero, jubilotekan parte hartu ahalko lukete; hala ere, bertan bizi direnek lehentasuna izanen dute.

5.- EKINTZAK.

Jubilotekaren programan sartzen diren ekintzak modulu hauen arabera egituratuak daude, aldaketak sartzen ahal badira ere:

- a) Joko eta jolasak.
- b) Tailerrak edo hitzaldiak.
- c) Proiektzioak.
- d) Irteerak edo txangoak.
- e) Musika jarduerak (abestu, dantza egin, etab.)

6.- EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA.

Zerbitzua bortz herrietan emanen da.

Jubilotekak urtarriletik abendura bitartean funtzionatuko du. Abuztuan ez da zerbitzu hori izanen, ezta Nafarroako Foru Komunitatean edota Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean ezarritako jai egunetan ere.

Jubilotekaren ordutegia honakoa izanen da:

- Bera: astelehen, asteazken eta ortziraletan: 10:00etatik 13:00etara
- Lesaka: astearte eta ortzegunetan, 10:00etatik 13:00etara.
- Arantza: astelehenetan, 16:00tik 18:00tara.
- Etxalar: asteartetan, 16:00tik 18:00tara.
- Igantzi: asteazkenetan, 16:30etik 18:30era.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak taldeen osaketa nahiz ordutegiak aldatu ahalko ditu, izena eman duten erabiltzaile kopuruaren arabera edota horiek egindako eskaeren arabera.

7.- BERAKO JUBILOTEKA

- Zerbitzu ematea: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, abuztuan salbu.
- Jubiloteka zerbitzua astean hiru egunez emanen da (hau da, 9 ordu astean), Lagun Handiak elkarteak Beran duen egoitzan (Legia karrika 26, Bera). Instalazio horiek odol-emaileek erabiltzen dituzten egunetan zerbitzua Beralandetan emanen da.
- Egunak eta orduak hauek izanen dira: astelehen, asteazken eta ortziralak, 10:00etatik 13:00ak arte.

8.- LESAKAKO JUBILOTEKA

- Zerbitzu ematea: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, abuztuan salbu.
- Jubiloteka zerbitzua astean bi egunez emanen da (hau da, 6 ordu astean), Lesakako Harriondoa Kultur Etxean (Zumarra aretoa).
- Egunak eta orduak hauek izanen dira: astearte eta ortzegunak, 10:00etatik 13:00ak arte.

9.- ARANTZAKO JUBILOTEKA

- Zerbitzu ematea: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, abuztuan salbu.
- Jubiloteka zerbitzua astean behin emanen da (hau da, 2 ordu astean), Arantzako Zahar Txoko elkartearen.
- Egunak eta orduak hauek izanen dira: astelehenak, 16:00tik 18:00tara.

10.- ETXALARKO JUBILOTEKA

- Zerbitzu ematea: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, abuztuan salbu.
- Jubiloteka zerbitzua astean behin emanen da (hau da, 2 ordu astean), Etxalarko Larraburua jubilatutako elkartearen egoitzan.
- Egunak eta orduak hauek izanen dira: astearteak, 16:00tik 18:00tara.

11.- IGANTZIKO JUBILOTEKA

- Zerbitzu ematea: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, abuztuan salbu.
- Jubiloteka zerbitzua astean behin emanen da (hau da, 2 ordu astean), Igantziko Baratzondo jubilatutako elkartearen egoitzan.
- Egunak eta orduak hauek izanen dira: asteazkenak, 16:30etik 18:30era.

12.- ERABILTZAILIEN ESKAERAK ETA HORIEN ONARPENA

Jubiloteka zerbitzuari buruzko informazioa Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak emanen du.

Jubilotekan parte hartzeko interesa dutenek izena emateko eskabidea aurkeztuko dute Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bulegoetan (Andutzeta 15, 3. Etxalar. Tfnoa: 948 635 036). Izena emateko eskabidearekin batera nortasuna egiaztatzeko agiriren baten (NAN edo pasaporte) fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, baita kuota kobratzeko bankuko datuak ere.

Izen ematearen gauzatzeak berarekin dakar jubilotekak funtzionatuko duen epealdi osoan bertara joateko eta baita zerbitzu emateko onartutako tasak ordaintzeko konpromisoa betetzea ere.

Izen emate eskaerek talde bakoitzeko kide kopurua gainditzen badute, eskaera horiek erreserban geldituko dira, sarrera ordenaren arabera.

13.- ERABILTZAILIEN ALTAK ETA BAJAK

13.1. ALTAK

Erabiltzaileak jubiloteka erabili ahalko du eskaera onartu eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren. Hilabeteko lehen hamabortzaldian hasiz gero (1etik 15era bitartean), hilabete osoa kobratuko zaio; bigarren hamabortzaldian hasiz gero (16tik aitzinera), hilabete erdia kobratuko zaio.

Erabiltzailea egun batzuz kanpoan egonen bada (oporak, etab.) eta plaza gordetzea nahi badu, aitzinetik abisua eman behar dio jubilotekaz arduratzen den langileari. Kasu horretan hilabete osoa kobratuko zaio, kanpoan emandako egunak kontuan hartu gabe.

Erabiltzailea osasun arrazoiengatik (ebakuntza kirurgikoa, medikuaren baja, etab.) kanpoan baldin bada, berriz itzuli bitartean plaza gordeko zaio eta ez zaio jubiloteka zerbitzuagatik kobratuko.

13.2. BAJAK

Erabiltzaileak baja emateko asmoa badu, gutxienez astebete lehenagotik jakinarazi beharko du.

Baja hilabeteko lehen hamabortzaldian (1etik 15era) gertatzen bada, hilabete erdia kobratuko zaio; bigarren hamabortzaldian gertatzen bada (16tik aitzinera), hilabete osoa.

14.- JUBILOTEKAKO LANGILE ARDURADUNAK

Jubilotekako langile arduradunaren funtzioak honakoak izanen dira:

- a) Taldeen eta ordutegien antolaketa.
- b) Materialaren inbentarioa, kalifikazioa eta katalogazioa.
- c) Zerbitzuari buruzko informazioa ematea eta sustatzea.
- d) Jardueren eta programen diseinua eta garapena.
- e) Jardueren plangintza.
- f) Jardueren ebaluazioa.
- g) Adineko pertsonen banakako segimendua.
- h) Familiakoei edo, hala badagokio, legezko ordezkariari arreta eta orientazioa ematea.
- i) Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko autonomia programako gizarte langilearekin koordinatzea.

Beren funtzioen barne, jubilotekako langile arduradunek araudi honetako 3. puntuari aipatzen diren helburuak garatuko dituzte.

15.- ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erabiltzaileek eskubidea dute jubilotekan antolatuko diren jardueretan parte hartzeko eta instalazioak nahiz materiala berdintasun irizpideen arabera erabiltzeko.

Erabiltzaileen betebeharra da jubilotekako instalazioak eta materiala modu egokian erabiltzea.

Behar den errespetua erakutsiko dute bai gainerako erabiltzaileekiko, baita zerbitzuaren ardura duten langileekiko ere.

Bete egin beharko dituzte instalazioen nahiz materialaren gainean edota programatutako jardueren gainean zerbitzuko arduradunek egindako oharra eta emandako aginduak.

Erabiltzaileek ordaindu egin beharko dituzte Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak zerbitzua emateko onartutako tasak.

16.- ZERBITZUAREN FINANTZAZIOA

Jubiloteka zerbitzua irizpide hauen arabera finantzatuko da:

- Erabiltzaileek ordaindutako tasak:

36 euro/hileko Beran.

24 euro/hileko Lesakan.

8 euro /hileko Arantza, Etxalar eta Igantzin.

17.- TARIFAK

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifen zenbatekoak aldatu ezean, Beran 36 eurokoa izanen da, Lesakan 24 eurokoa eta Arantza, Etxalar eta Igantzin 8 eurokoa.

18.- ARAU HAUSTEAK

Arau hauste gisa hartuko dira araudi honetan ezarritako betebeharrak osoki edo partzialki bete ez izatea.

A) Arau hauste arinak honakoak dira:

- a) Instalazioak eta materiala modu egokian ez erabiltzea.
- b) Zerbitzuaren arduradunek egindako oharrei eta emandako aginduei kasurik ez egitea.

B) Honakoak arau hauste larriak dira:

- a) Arau hauste arinak behin eta berriz egitea.
- b) Gainerako erabiltzaileekiko errespeturik ez izatea.
- c) Zerbitzuaren arduradunekiko errespeturik ez izatea.
- d) Jubilotekaren instalazioetan edota materialean nahita kalteak eragitea.
- e) Ordena asaldatzea eta programatutako ekintzen garapena eragozteak.

C) Arau hauste hagitz larriak hauek dira:

Arau hauste larriak behin eta berriz egitea.

19.- ZIGORRAK

Arau hauste arinak egiten dituztenak jubilotekatik aste batez kanporatuko dira.

Arau hauste larriak egiten dituztenak jubilotekatik hilabete batez kanporatuko dira, eta hala badagokio instalazioetan edota materialean egindako kalteen kostearen adinako isuna izanen dute.

Arau hauste hagitz larrien kasuan jubilotekatik behin betiko kanporatuko dira, eta hala badagokio instalazioetan edota materialean egindako kalteen kostearen adinako isuna izanen dute.

Etxalar, 2024ko ekainaren 13an.

